Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Pili Barandiaran Barandiaran

Ataun, Gipuzkoa (1944)

Aurkibidea

Biografia

Baserrian jaio zen 13 senideko familian; aitona eta izeba-osabak ere eurekin bizi ziren. Gaztetan baserrian lan asko egitea egokitu zitzaien, ezkondu arte.

Zintak

ATA-004

- **Proiektua**: Dialektologia-EHU
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gorostizu, Ainara
- **Data**: 2002-01-01
- **Iraupena**: 36 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Unamuno, Arianne
- **Emalea**: Zuazo Zelaieta, Koldo

Pasarteak

1. Mutilak etorkizunerako gai, neskak etxeko lanetarako

- **Erref**: ATA-004/003
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:02:08. **Bukatu**: 00:04:07
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Ahizpak, haziz zihoazen eran, neskame joaten ziren; bera ez. Bi anai zaharrenak seminariora eraman zituzten. Gurasoek mutilak ikusten zituzten etorkizunerako gai; neskak, berriz, etxeko lanetarako eta zaintzarako.

2. Dotrina amak erakutsita

- **Erref**: ATA-004/004
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:04:07. **Bukatu**: 00:06:11
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:
Hamaika urtera arte joan zen eskolara. Amak erakusten zien dotrina etxean; jatorduengatik eskerrak ematen, otoitzak egiten... Dena erdaraz ikasi zuen. Kantuz ikasten zuten dotrina.

3. Aitarekin mendira idiak hartuta egurra ekartzera

- **Erref**: ATA-004/005
- **Iraupena**: 0:04:36. **Hasi**: 00:06:11. **Bukatu**: 00:10:47
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:
Egur-loteak zozketatzen zituzten udaletxean. Goizean atera eta iluntzera arte joaten ziren aitarekin mendira, idiak hartuta, egurrak ekartzera. Egun guztiko otordua eramaten zuten. Nondik nora ibiltzen ziren kontatzen du. Bidaiko, eguneko, hamar ogerleko kobratzen zituen aitak. Familia batzuek ogitartekoa ere ematen zieten lanaren truke; beste batzuek ez, ezin zutelako.

4. Amak lortzen zuen etxerako janaria eta abereentzat pentsua

- **Erref**: ATA-004/006
- **Iraupena**: 0:02:51. **Hasi**: 00:10:47. **Bukatu**: 00:13:38
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:
Irakurtzen eta idazten ikasi zuen baina zatiketak egiten ez. Aita mendira joaten zen egun osorako; amak gazta egiten zuen eta plazara joaten zen saltzera. Abereentzako pentsua eta aste osorako janaria lortu behar izaten zituen amak. Aita lotsatu egiten zen zorrak eskatzerakoan. Goserik ez zuen izan, ezta luxurik ere. Amak etxeko denei josten zizkien arropak.

5. Josten eta euskaraz alfabetatzen

- **Erref**: ATA-004/007
- **Iraupena**: 0:03:27. **Hasi**: 00:13:38. **Bukatu**: 00:17:05
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkongabeak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:
Hemezortzi urte ingururekin, neguan, Beasainen josten hasi zen. Hogeita hiru urterekin ezkondu zen eta hogeita bostekin izan zuen aurreneko semea. Euskaraz alfabetatu zen, lau seme zituela, ama ezkongabe bat irakasle zuela. Dotrinako irakasle izan da urte askoan, eta pixkaka jazten joan dela dio.

6. Tuntun-jotzailearekin edo Beasainera festara

- **Erref**: ATA-004/008
- **Iraupena**: 0:05:32. **Hasi**: 00:17:05. **Bukatu**: 00:22:37
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:
Hamasei bat urterekin hasi zen Beasainera-eta festara joaten. Hamar pezeta ematen zizkion amak. Bezperetara joan behar izaten zuten elizara, larunbatean. Autobusak izaten ziren. Udaletxean bi familia bizi ziren, bata basozaina eta bestea tuntun-jotzailea. Eguraldi txarra bazen eta festara joaten ez baziren, tuntun-jotzailearekin egiten zuten jaia. Bestela, oinez joaten ziren Beasainera eta pastelak jaten zituzten. Jende asko joaten zen dantzara. Izugarri dantzaria izan dela dio. Itzulera autobusez egiten zuten.

7. Trikitilariak, gaiteroak eta jazbanak

- **Erref**: ATA-004/009
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:22:37. **Bukatu**: 00:25:07
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
Herriko festetan trikitilariak eta Lizarrako gaiteroak izaten ziren, baita jazbanak ere. Mutil bati helduta dantzan zebilela, mendiko basozainak makilarekin jo zituenekoa kontatzen du. Gizon hura nola jazten zen azaltzen du.

8. Jendaurrean ezin zen alkoholik edan

- **Erref**: ATA-004/012
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:29:36. **Bukatu**: 00:31:04
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak

Laburpena:
Hilabete batzuez neskame egon zen Irundik etorritako medikuarekin. Familian ez zen inoren bistan alkoholik edaten. Ardo pixka bat jende aurrean edan zuelako aitak jipoitu zuenekoa kontatzen du.

9. Medikuaren andreak erre eta edan egiten zuen

- **Erref**: ATA-004/014
- **Iraupena**: 0:03:53. **Hasi**: 00:31:21. **Bukatu**: 00:35:14
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak

Laburpena:
Medikuaren etxea nola garbitzen zuen kontatzen du. Medikuaren andreak asko erretzen zuela dio, eta edan ere egiten zuela. Lehen orain beste alkohol edaten zela dio.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-18

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com